



BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure produktuari AB PLASTIC izena ipini diogu “Aurreztu Birziklatu plastikoa” laburbiltzeko modurik egokiena iruditzen zaigulako. Plastikoa desagertzea ez dagoenez gure esku, gure helburua jendea plastikoak birziklatzera motibatzea da.

Guk eskainiko dugun zerbitzuaren helburua plastikoak berrerabiltzea da kutsadura murrizteko asmoz. Herri bakoitzean kokatuko diren makina kopurua biztanleriaren arabera izango da. Makina hauei esker, jendeak, kalean jasotako edo etxean bildutako plastikoen truke diru kopuru bat jasoko du.

Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia sustatzea dugu helburu, bertako enpresei gure makinak egiteko beharrezkoak diren piezak erosiz.

Hasteko AB PLASTICek sortzen dituen onurak aipatuko ditugu:

- Kaleak garbiago mantenduko dira.
- Plastikoa bakarrik onartuko dituen ez ingo dira beste motatako hondakinekin nahastu.
- Plastikoen berrerabilpena handitu egingo da kutsadura murriztuz.
- Jendea birziklatzera motibatzen du trukean dirua jasotzen duelako.
- Plastikozko edukiontziek sortzen duten usain txarra murriztuko da.
- Itsasoan plastiko gutxiago pilatuko da, eta animaliak kutsadura gutxiago jasango dute.
- Ez da kiratsik sortuko kaleetan.

ERABILERA:

Plastikoa duzunean, oso erraz birziklatu dezakezu. Egin beharreko pausoak ondorengoak dira:

1. Plastikoa zulotik sartu.
2. Makinak plastikoaren pisua kalkulatu du eta 5 gramo baino gehiago baditu makinak plastikoa irentsiko du.
3. Duen pisuaren arabera zentimo batzuk bueltatuko dizkizu makinak, hau da 5gramoko 10 zentimo itzuliko dizkizu.

